


AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA KATE HANDIETAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (AHEK) 2018ko otsaila

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %3,4 gehitu 2018ko otsailean

2018ko lehen bi hiletan %1,8ko hazkundera

Eustaten arabera, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, 2018ko otsailean %3,4ko urte arteko gehikuntza Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentek, prezio finkoetan. Urtarrilaren aldean salmentak %0,8 gehitu urtaro eraginik gabe.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Elikagaien salmentek %3,6ko urte arteko gehikuntza nominala, eta gainerako salgaienak %3,0.

Urte artean Araban %1,9ko gehikuntza; Bizkaian %3,3; Gipuzkoan %4,1.

2018ko urtarrilaren aldean, elikagaien salmentak %0,6 gehitu eta gainerako salgaienak %1,3, prezio finkoetan eta urtaro eraginik gabe.

2018ko urtarrilaren aldean, prezio finkoetan, urtaro eraginik gabe: Gipuzkoan %0,9 gehitu; Bizkaian %0,8; Araban %0,5.

Langile kopurua %2,9 gehitu aurreko urteko hil beraren aldean, eta %0,5 aurreko hilaren aldean, urtaro-eraginik gabe.

1. taula. Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Otsaila. 2018

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	3,4	0,8	1,8
Araba/Álava	1,9	0,5	0,7
Bizkaia	3,3	0,8	1,6
Gipuzkoa	4,1	0,9	2,6
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	3,6	0,6	2,6
Beste produktuak	3,0	1,3	0,2
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	2,9	0,5	2,6

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarrietik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea-AHEK

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62